**AGINDUA, 2026KO ABUZTUAREN 12KOA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUARENA, TRATU BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEKO AGINTZEN DUENA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (6/2022 Legea) 12.1 artikuluan ezartzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedurak xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren Aginduz hasiko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio:

a) Gazteak eta emantzipazioa.
b) Erronka demografikoa.
c) Familia babestea eta lana eta familia bateragarri egitea.
d) Komunitatearen garapena. Gizarte ongizatea eta gizarte-zerbitzuak.
e) Familia-bitartekaritza.
f) Haurrak eta Nerabeak. Adingabearen babesa.
g) Zahartze- eta zaintza-politika.
h) Askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzea. Sexu-aniztasuna.
i) Migrazioa eta asiloa. Kultura-aniztasuna.
i bis) Erlijio-askatasunerako eskubidea baliatzeari buruzko gobernu-politika proposatzea eta gauzatzea, bai eta erlijio-aniztasuna kudeatzea ere.
j) Boluntariotza.
k) Hirugarren Sektore Soziala.
l) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
m) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

**ORDEN DE 12 DE AGOSTO DE 2026, DE LA CONSEJERA DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO, POR LA QUE SE ORDENA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN.**

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (Ley 6/2022) establece en su artículo 12.1 que los procedimientos de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciarán por Orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

Conforme a lo dispuesto en el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, al Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Juventud y emancipación.
b) Reto demográfico.
c) Protección de la familia y conciliación de la vida laboral y familiar.
d) Desarrollo comunitario. Bienestar social y servicios sociales.
e) Mediación familiar.
f) Infancia y Adolescencia. Protección del menor.
g) Política de envejecimiento y cuidados.
h) Promoción de las condiciones que faciliten la libertad afectivo-sexual. Diversidad sexual.
i) Migración y asilo. Diversidad cultural.
i bis) Propuesta y ejecución de la política del gobierno relativa al ejercicio del derecho a la libertad religiosa, así como la gestión de la diversidad religiosa.
j) Voluntariado.
k) Tercer Sector Social.
l) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento.
m) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.

Bestalde, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 9. artikuluak Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldi arteko Elkartasun Zuzendaritzari esleitzen dizkio, besteak beste adin, jatorri, kultura, erlijio edo sexu-orientazio desberdineko pertsonen arteko bizikidetza eta elkartasuna sustatzea, eta bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa positiboaren arloan azaleratzen ari diren erronkei erantzuteko jarduera-programak diseinatzea, ezartzea eta koordinatzea; Sexuagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, erlijioagatik edo ideologiagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik egindako diskriminazio ororen aurkako borroka indartzea, diskriminazio anitzeko egoerei arreta berezia eskainiz, eta diskriminazio-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta horiei aurre egiteko ekimenak eta neurriak sustatuz, bai eta gorroto-gertakariak eta -delituak prebenitzeko eta horiei erantzuteko ere; hori guztia, bizikidetza bultzatzeko; eta erlijioen eta kulturen arteko bizikidetza sustatzea, erlijio-aniztasunarekiko eta erlijio-adierazpen guztien eskubide eta betebeharrekiko errespetuan oinarrituta, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden elizen, erlijio-konfesioen eta erlijio-komunitateen euskal gizartean integratutako bizikidetza sendotzea.

Aurrekoarekin bat etorriz, Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Legearen aurreproiektua egitea Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren eskumen-eremuan sartzen da, eta Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldi arteko Elkartasun Zuzendaritzari dagokio hura egiteko beharrezkoak diren jarduketak bultzatzea eta izapidetzea, esleituta dituen eginkizunak betez.

Bestalde, hasteko Agindu honen edukiari dagokionez, 6/2022 Legearen 13.1 artikuluak ezartzen duenez, hasteko Aginduak labur-labur adieraziko ditu arauaren xedea eta helburua, eta arauaren bideragarritasun juridiko eta materialari buruzko balioespena jasoko du; ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioen

Por su parte, el artículo 9 del Decreto 320/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, atribuye a la Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional, entre otras, las funciones de promover la convivencia y la solidaridad entre personas de distinta edad, origen, cultura, religión u orientación sexual, y diseñar, implementar y coordinar programas de actuación centrados en la respuesta a los retos emergentes de la convivencia y la gestión positiva de la diversidad; fortalecer la lucha contra toda forma de discriminación por razón de sexo, origen racial o étnico, religión o ideología, orientación sexual, identidad de género, edad, discapacidad o cualquier condición o circunstancia personal o social, prestando particular atención a las situaciones de discriminación múltiple, y promoviendo iniciativas y medidas para la prevención, detección y abordaje de las situaciones de discriminación, y para la prevención y respuesta a los incidentes y delitos de odio, todo ello, en aras a favorecer la convivencia; y promover una convivencia interreligiosa e intercultural basada en el respeto al pluralismo religioso y a los derechos y deberes de todas sus expresiones, y consolidar una convivencia integrada en la sociedad vasca de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas presentes en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con lo anterior, la elaboración del anteproyecto de Ley de Igualdad de Trato y No Discriminación se incardina en el ámbito competencial del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, correspondiendo a la Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional el impulso y la tramitación de las actuaciones necesarias para su elaboración, en el ejercicio de las funciones que tiene atribuidas.

Por otro lado, en lo que se refiere al contenido de esta Orden de inicio, el artículo 13.1 de la Ley 6/2022 establece que la Orden de iniciación expresará sucintamente el objeto y finalidad de la norma y contendrá una estimación sobre su viabilidad jurídica y material; una previsión de sus repercusiones en el

aurreikuspena; erantsitako txosten bat, proiektatutako arauaren edo haren eraginpeko xedapenen eraginaren, emaitzen edo bestelako ebaluazioen berri ematen duena; aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruzko hurbilketa bat; gaia eta proposatutako erregulazioaren edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen diren izapide eta txostenen zerrenda, nahitaezkoa ez den izapide bakoitza eraginkorra, proportzionatua eta beharrezkoa izateko arrazoiak adieraziz , gaiaren berezitasuna edo lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, eta xedapenak Europar Batasunaren aurrean izapideren bat bete behar duen zehaztuz; xedapenak eragin diezaiekeen subjektu eta erakunde adierazgarrienen aurretiazko identifikazioa, edo, hala badagokio, herritarren parte-hartzeari buruzko izapideak ez egitearen justifikazioa edo legegintza-ekimenen presako izapidetzea justifikatzen duten arrazoien justifikazioa, eta entzunaldiaren eta jendaurrean jartzeko izapideen epea murriztea; testu artikulatuaren itzulpenerako edo idazketa elebidunerako teknika zehaztea; instrukzioa egingo duen administrazio-organoa izendatzea, eta urteko araugintza-planean agertzen ez den arau-proposamena denean, izapidetzea egokia dela justifikatzea.

ordenamiento jurídico; un dosier adjunto que contenga las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que haya sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella; una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos; la relación de los trámites e informes que se estiman procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta, indicando los motivos por los que cada trámite no preceptivo resulta eficaz, proporcionado y necesario atendiendo a la singularidad de la materia o a los fines perseguidos y especificando si la disposición ha de ser objeto de algún trámite ante la Unión Europea; la identificación preliminar de los sujetos y las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la disposición o, en su caso, la justificación de la omisión de los trámites relativos a la participación ciudadana o de las razones que justifiquen la tramitación urgente de iniciativas legislativas y la reducción del plazo de los trámites de audiencia y exposición pública; la determinación de la técnica que se seguirá para la traducción o redacción bilingüe del texto articulado; la designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción y cuando se trate de una propuesta normativa que no figure en el plan anual normativo, la justificación de la oportunidad de su tramitación.

**Egin beharreko arauaren xedea eta helburua.**

Lege-aurreproiektuaren xedea da tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea sustatzea eta bermatzea, diskriminazio mota oro prebenitzea eta desagerraraztea, eta baita berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko behar diren baldintzak sustatzea ere. Horretarako, Legeak pertsona fisiko edo juridikoen, publiko zein pribatuen, eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu, botere publikoen jarduteko printzipioak ezartzen ditu eta berdintasuna sustatu eta bermatzeko tresnak zehazten ditu, EAEko Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Zerbitzua barne, bai eta sektore publikoan eta pribatuan diskriminazio mota oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, prebenitu, ezabatu eta zuzentzekoak ere.

Arauaren helburua da tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidearen babes eraginkorra bermatzea, prebentzio- eta erreparazio-neurriak hartuz,

**Objeto y finalidad de la norma a elaborar.**

El anteproyecto de Ley tiene por objeto promover y garantizar el derecho a la igualdad de trato y a la no discriminación, prevenir y erradicar cualquier forma de discriminación, así como promover las condiciones necesarias para que la igualdad sea real y efectiva. A tal fin, la Ley regula los derechos y obligaciones de las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, establece los principios de actuación de los poderes públicos y determina los instrumentos destinados a promover y garantizar la igualdad, incluido el Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación, así como a prevenir, eliminar y corregir toda forma de discriminación, directa o indirecta, en los sectores público y privado.

La finalidad de la norma es garantizar la protección efectiva del derecho a la igualdad de trato y a la no discriminación mediante la adopción de medidas preventivas y reparadoras,

diskriminatuak diren biktimei arreta berezia eskainiz, eta Euskal Autonomia Erkidegoa, aniztasuna, tolerantzia, errespetua eta berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko dituen bizikidetza gune gisa finkatzen lagunduz.

**Egin beharreko arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Legeak diskriminazio mota guztiak ekiditeko eta ezabatzeko lege esparrua ezartzen du. Era berean, tratu berdintasunaren zeharkako aplikazioa bultzatzen du politika publikoak formulatzerako, gauzatzerako eta ebaluatzerako orduan. Are gehiago, administrazio publikoen elkarren arteko edota gizarte eragileen zein gizarte zibil antolatuaren arteko koordinazioa eta lankidetza sustatzen du.

Era berean, Legearen Azken Xedapenetako Zortzigarrenaren hamalaugarren atalak ezartzen du araua ordezko izaeraz aplikatuko dela beren eskumen propioak baliatuz arlo horretan legeak eman dituzten autonomia erkidegoetan. Bestalde, 3. artikuluak xedatzen du Legearen aurreikuspenak autonomia erkidegoetako araudian ezarritako araubide espezifikoei kalterik egin gabe aplikatuko direla. Halaber, aipatutako Legearen 35. artikuluak administrazio publikoen arteko lankidetza eta kooperazioa sustatzen ditu, bakoitzak bere eskumenak baliatzean.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluaren d) atalak euskal botere publikoei esleitzen die pertsonen eta haiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen baldintzak sustatzera eta oztopoak kentzera bideratutako neurriak hartzeko eginkizuna. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko bideratutako politika publikoak garatzeko, eta baita antolaketa, funtzionamendua eta administrazio-prozedura arautzeko eskumena ere badauka.

Azken batean, Euskadin Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Lege-aurreproiektu hau egitea arau-erantzun egokia eta proportzionatua da Euskadin tratu-

con especial atención a las víctimas de discriminación, contribuyendo a consolidar la Comunidad Autónoma del País Vasco como un espacio de convivencia que promueva la diversidad, la tolerancia, el respeto y la igualdad real y efectiva.

**Viabilidad jurídica y material de la norma que se elabora.**

La Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación, establece un marco legal dirigido a prevenir y eliminar todas las formas de discriminación, así como impulsar la aplicación transversal de la igualdad de trato en la formulación, ejecución, y evaluación de las políticas públicas, la coordinación entre las diferentes administraciones públicas y la colaboración entre las mismas, los agentes sociales y la sociedad civil organizada.

Asimismo, su Disposición Final Octava, apartado catorce, prevé el carácter supletorio de la norma respecto de aquellas comunidades autónomas que hayan legislado en la materia en el ejercicio de sus competencias propias, mientras que su artículo 3 dispone que sus previsiones se entienden sin perjuicio de los regímenes específicos más favorables establecidos por la normativa autonómica. Del mismo modo, el artículo 35 de la citada Ley promueve la colaboración y cooperación entre las distintas administraciones públicas en el ejercicio de sus respectivas competencias.

En este contexto, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su artículo 9.2 apartado d), encomienda a los poderes públicos vascos la adopción de aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean reales y efectivas. La Comunidad Autónoma de Euskadi dispone, por tanto, de competencias para el desarrollo de políticas públicas orientadas a garantizar la igualdad y la no discriminación, así como para regular la organización, funcionamiento y procedimiento administrativo.

En definitiva, la elaboración del anteproyecto de Ley constituye una respuesta normativa adecuada y proporcionada para garantizar la igualdad de trato y la no

berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko, autonomia erkidegoaren eskumen esparruarekin bat etorriz eta baita Estatuko zein Europako ordenamendu juridikoek ezarritako printzipio eta helburuekin bat eginez ere.

**Eragina ordenamendu juridikoan.**

Legea onartzeak berekin ekarriko du Euskal Autonomia Erkidegoko ordenamendu juridikoan tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko esparru integrala txertatzea, orain arte halakorik ez baitago. Legea onartu, lege testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta indarrean jarri ondoren, Legea Euskal Autonomia Erkidegoko ordenamendu juridikoan integratuko da, eta bertan ezarritako ondorio juridikoak izango ditu.

**Generoaren araberako eragina.**

Genero-inpaktuaren ebaluazioari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 20.1 artikuluan ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek ebaluatu egin behar dute arau-xedapenek emakumeen eta gizonen egoeran izan dezaketen inpaktua, eta baloratu egin behar dute zer ondorio izan ditzaketen desberdintasunak ezabatzean eta berdintasuna sustatzean.

Arau-eraginaren memorian egingo den eraginaren ebaluazioaren arabera, aurreproiektuan sartuko dira balizko eragin negatiboa neutralizatzeko, hautemandako desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeko eta sexu-berdintasuna sustatzeko neurriak. Gainera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreproiektuari buruzko txostena egin behar du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egiteko

Lege-aurreproiektu honen xedea izango da pertsona guztien tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea edozein diskriminazio-kausaren aurrean, eta politika publiko eta bizikidetza-eremu guztietan eragiten duen zeharkako arau gisa eratuko da. Hala ere,

discriminación en Euskadi, de conformidad con el marco competencial autonómico y en coherencia con los principios y objetivos establecidos por el ordenamiento jurídico estatal y europeo.

**Repercusión en el ordenamiento jurídico.**

La aprobación de la Ley supondrá la incorporación al ordenamiento jurídico de la Comunidad Autónoma de Euskadi de un marco normativo integral en materia de igualdad de trato y no discriminación, inexistente hasta la fecha. Una vez aprobada la Ley, publicado el texto legal en el Boletín Oficial del País Vasco y producida su entrada en vigor, la Ley pasará a integrarse en el ordenamiento jurídico de la Comunidad Autónoma de Euskadi, desplegando los efectos jurídicos que en ella se establezcan.

**Impacto en función de género.**

En lo referente a la evaluación de impacto de género, el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres establece, en su artículo 20.1 la obligación de las administraciones públicas vascas de evaluar el impacto potencial de las disposiciones normativas en la situación de mujeres y hombres, valorando sus efectos en la eliminación de desigualdades y en la promoción de la igualdad.

En función de la evaluación de impacto que se realizará en la memoria de impacto normativo, se incluirán en el anteproyecto las medidas dirigidas a neutralizar su posible impacto negativo, a reducir o eliminar las desigualdades detectadas y a promover la igualdad de sexo. Además, el anteproyecto ha de ser informado por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, a efectos de verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en la citada Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista, y, en su caso, realizar propuestas de mejora en tal sentido.

El presente anteproyecto de Ley tendrá por objeto garantizar la igualdad de trato y la no discriminación de todas las personas frente a cualquier causa de discriminación, configurándose como una norma de carácter transversal que incide sobre el conjunto de las

haren aplikazioak eragin espezifikoa izango du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, berariaz jasoko baitu sexu- eta generodiskriminazioa babestutako arrazoien artean, eta diskriminazio-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta konpontzeko neurriak ezarriko baititu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, araua egiteko prozesuaren hasieratik txertatuko da genero-ikuspegia, bai diseinuan, bai helburuak, edukiak eta aplikazio-mekanismoak definitzean, eta ahalegina egingo da haren aurreikuspenek dauden desberdintasunak ezabatzen eta diskriminazio-inpaktuak saihesten lagun dezaten.

Era berean, aurreproiektuak aurreikuspen espezifikoak jasoko ditu generoikuspegiaren integrazioa indartzeko. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: Legea genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik aplikatzea eta interpretatzea, estatistikak, azterlanak eta adierazleak egitean generoikuspegia txertatzea, Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eta Batzordeen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea, eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan aritzea sexuagatiko edo generoagatiko diskriminazioari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko duen eginkizun nagusia kontuan hartuta.

Azkenik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia betez, araua idaztean hizkera ez-sexista erabiltzea zainduko da.

**Haur eta nerabeen gaineko eragina.**

Aurreproiektuak eragin positiboa izango du haurrengan eta nerabeengan, babesa indartzen baitu edozein diskriminazio-motaren aurrean, eta tratu berdintasun eraginkorra sustatzen baitu adingabeentzat bereziki garrantzitsuak diren eremuetan, hala nola hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, kirolean,

políticas públicas y de los ámbitos de convivencia. No obstante, su aplicación presentará una incidencia específica en la igualdad entre mujeres y hombres, al incluir expresamente la discriminación por razón de sexo y género entre los motivos protegidos y establecer medidas dirigidas a prevenir, detectar y reparar las situaciones de discriminación promoviendo la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres.

En coherencia con lo dispuesto en el artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y con el Decreto Legislativo 1/2023, la perspectiva de género se incorporará desde el inicio del proceso de elaboración de la norma, tanto en su diseño como en la definición de sus objetivos, contenidos y mecanismos de aplicación, procurando que sus previsiones contribuyan a eliminar las desigualdades existentes y a evitar la generación de impactos discriminatorios.

Asimismo, el anteproyecto incorporará previsiones específicas que refuercen la integración de la perspectiva de género, entre las que cabe destacar, la aplicación e interpretación de la Ley desde un enfoque de género y feminista, la incorporación de la perspectiva de género en la elaboración de estadísticas, estudios e indicadores, la garantía de una representación equilibrada de mujeres y hombres en la composición del Pleno y de las Comisiones del Consejo y la colaboración con EMAKUNDE–Instituto Vasco de la Mujer en todo lo relativo a la discriminación por razón de sexo o género, en atención a su papel central en la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres y en la prevención de la violencia machista.

Finalmente, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad entre mujeres y hombres, se velará por el uso no sexista del lenguaje en la redacción de la norma.

**Impacto sobre la infancia y la adolescencia.**

El anteproyecto supondrá un impacto positivo sobre la infancia y la adolescencia, al reforzar la protección frente a cualquier forma de discriminación y promover la igualdad efectiva de trato en ámbitos especialmente relevantes para las personas menores de edad, como la educación, los servicios sociales, el deporte, la

kulturan eta zerbitzu publikoetarako sarbidean. Arauaren helburua da adingabeei eragin diezaieketen bazterkeria-egoerak prebenitzen laguntzea, arraza- edo etnia-jatorriagatik, nazionalitateagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik, erlijioagatik, egoera sozioekonomikoagatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik.

Era berean, haur eta nerabeentzako ingurune inklusiboagoak eta seguruagoak sortzen lagunduko du, haien oinarrizko eskubideen bermea indartuz eta adingabearen interes gorenaren printzipioarekin bat etorriz.

Ez da inpaktu negatibo esanguratsurik identifikatu kolektibo horretan, adingabeek informazio-, prebentzio- eta salaketa-mekanismoak eskuragarriak eta ulergarriak direla ziurtatzeko beharraz harago.

**Gazteen gaineko eragina.**

Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Legearen EAEko Legearen aurreproiektuak eragin positibo handia izango du EAEko gazteengan. Nabarmentzen da Legeak eragina izango duela nerabeen eta gazteen bizitzan oso presente dauden eremuetan, hala nola hezkuntzan, enpleguan, etxebizitzan, gizarte-zerbitzuetan, osasunean, parte-hartzean, aisialdian eta ingurune digitaletan. Aurreproiektua tresna erabilgarria izan daiteke eremu horietan nerabeei eta gazteei eragiten dien diskriminazioari aurre egiteko; hala ere, haren eraginkortasuna benetako gazte-ikuspegia txertatzearen, adierazle egokiak izatearen, zerbitzu irisgarriak izatearen eta kolektibo gazte kalteberenei arreta berezia ematearen mende egongo da.

**Irisgarritasunean duen eragina.**

Arau-ekimen honek eragin positiboa izango du irisgarritasunaren arloan, pertsona guztiek Legean aitortutako eskubideak modu erreal eta eraginkorrean baliatu ahal izatea bermatu nahi baitu, aurreikusitako zerbitzu, prozedura eta tresnak eskuratzea zaildu diezaieketen oztopoak kenduz edo murriztuz. Bereziki, araua egitean eta aplikatzean, zainduko du aurreikusitako prozedura, zerbitzu eta tresnek, bereziki herritarrei arreta emateari eta jarduketen izapidetze presentzial eta elektronikoari buruzkoek, irisgarritasun unibertsalerako eskubidea errespetatzen dutela, pertsona guztiek,

cultura y el acceso a servicios públicos. La norma pretende contribuir a prevenir situaciones de exclusión que puedan afectar a menores por razón de origen racial o étnico, nacionalidad, discapacidad, orientación sexual, identidad de género, religión, situación socioeconómica o cualquier otra condición personal o social.

Asimismo, favorecerá la creación de entornos más inclusivos y seguros para niños, niñas y adolescentes, reforzando la garantía de sus derechos fundamentales y alineándose con el principio del interés superior del menor.

No se identifican impactos negativos significativos sobre este colectivo, más allá de la necesidad de asegurar que los mecanismos de información, prevención y denuncia sean accesibles y comprensibles para las personas menores de edad.

**Impacto sobre la juventud.**

El anteproyecto de Ley Vasca de Igualdad de Trato y No Discriminación tendrá un impacto positivo alto sobre la juventud vasca. Se destaca que la Ley tendrá incidencia en ámbitos muy presentes en la vida de adolescentes y jóvenes, como la educación, el empleo, la vivienda, los servicios sociales, la salud, la participación, el ocio y los entornos digitales. El anteproyecto puede convertirse en una herramienta útil para combatir la discriminación que afecta a adolescentes y jóvenes en dichos ámbitos, sin embargo, su eficacia dependerá de que incorpore una verdadera perspectiva juvenil, disponga de indicadores adecuados, cuente con servicios accesibles y preste especial atención a los colectivos jóvenes más vulnerables.

**Impacto en la accesibilidad.**

La presente iniciativa normativa supondrá una incidencia positiva en materia de accesibilidad, en cuanto persigue garantizar que todas las personas puedan ejercer de forma real y efectiva los derechos reconocidos en la Ley, eliminando o reduciendo las barreras que puedan dificultar su acceso a los servicios, procedimientos e instrumentos previstos en la misma. En particular, en la elaboración y aplicación de la norma velará que los procedimientos, servicios e instrumentos previstos, especialmente los relativos a la atención a la ciudadanía y a la tramitación presencial y electrónica de las

eta bereziki desgaitasuna dutenek edo laguntza-premia espezifikoak dituztenek, beren eskubideak berdintasun-baldintzetan eskuratu eta baliatu ahal izan ditzaten. Hori guztia egiteko, bereziki hartuko dira kontuan Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak planteatzen dituen elementuak, bai eta irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia ere, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren irizpideak edo aholkularitza teknikoa eskatu ahal izatea, lege horren 26.b) artikuluak esleitzen dizkion eginkizunak betez.

**Aurrekontuetan izango duen eragina.**

6/2022 Legearen 13.1.d) artikuluak eskatzen du hasteko Aginduak hurbilketa bat egitea eragindako administrazio publikoen aurrekontuetan, ukitutako gaian eta, hala badagokio, dagokion jarduera-sektorean izan dezakeen eraginari buruz.

Alde horretatik, Lege-aurreproiektuak ondorio ekonomikoak eta aurrekontu-ondorioak izango ditu EAEko administrazio publikoentzat, batez ere Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Zerbitzuaren sorreratik eta funtzionamendutik eratorriak. Zerbitzu horri eginkizun hauek esleitzen zaizkio: arreta presentziala eta telematikoa ematea, diskriminazioaren biktimei laguntza eta informazioa ematea, azterlanak eta estatistikak egitea, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea, Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Plana sustatzea eta beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin koordinatzea. Bai eta zehatzeko ahala erabiltzea ere, Legean bertan aurreikusitako baldintzetan, eta arauan aurreikusitako gainerako eginkizunak betetzea. Era berean, ekimenak Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Kontseiluaren sorrera eta funtzionamendua aurreikusten ditu, eta kontseilu horren ezarpenak eta funtzionamenduak ekonomiaren eta aurrekontuen arloko premiak sortuko dituzte. Era berean, ekimenak eragina izan dezake EAEko administrazio publikoen antolaketan eta jardueran, arauak jarduerak koordinatzeko, lankidetzan aritzeko eta garatzeko esleitzen dizkien betebeharrak kontuan hartuta.

actuaciones, respeten el derecho a la accesibilidad universal, de manera que todas las personas, y en especial aquellas con discapacidad o con necesidades específicas de apoyo, puedan acceder y ejercer sus derechos en condiciones de igualdad. Todo ello se realizará tomando especialmente en consideración los elementos que plantea la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, así como el resto de la normativa vigente en materia de accesibilidad, sin perjuicio de que, en su caso, puedan recabarse los criterios o el asesoramiento técnico del Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad, en el ejercicio de las funciones que le atribuye el artículo 26.b) de la citada Ley.

**Incidencia en los presupuestos.**

El artículo 13.1.d) de la Ley 6/2022 requiere que la Orden de inicio contenga una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate.

En este sentido, el anteproyecto de Ley conllevará repercusiones económicas y presupuestarias para las administraciones públicas vascas derivadas principalmente de la creación y funcionamiento del Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación, al que se atribuyen funciones de atención presencial y telemática, apoyo e información a las víctimas de la discriminación, elaboración de estudios y estadísticas, actividades de sensibilización y formación, impulso del Plan para la Igualdad de Trato y No Discriminación y coordinación con otras administraciones públicas y entidades; así como del ejercicio de la potestad sancionadora en los términos previstos en la propia Ley y del ejercicio de las restantes funciones previstas en la norma. Del mismo modo, la iniciativa prevé la creación y funcionamiento del Consejo Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación cuya implantación y funcionamiento generarán igualmente necesidades de carácter económico y presupuestario. Asimismo, la iniciativa puede tener incidencia sobre la organización y actividad de las administraciones públicas vascas, en atención a las obligaciones de coordinación, colaboración y desarrollo de actuaciones que la norma les atribuye.

Hasierako balorazio hori alde batera utzi gabe, aurrekontu-eragina berariaz tratatuko da arau-eragina aztertzeko memorian. Memoria hori arau-azterketaren memoriari erantsiko zaio espedientearen barruan, aurreproiektua aldez aurretik onartzeko Aginduarekin batera, 6/2022 Legearen 13. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Horretarako, memoria horrek ebaluatuko ditu arauan jasotako neurrien ezarpen- eta funtzionamendu-kostuak, bai eta eragindako administrazio publikoen giza baliabideetan, baliabide materialetan eta aurrekontu-baliabideetan izan dezaketen eragina ere.

**Administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina.**

Arau honek ez du administrazio-karga berririk sortuko enpresak sortzeko eta funtzionatzeko, eta ez da aurreikusten eragin nabarmenik izango duenik enpresa txiki eta ertainetan edo jarduera ekintzailearen sustapenean eta sustapenean.

**Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Espedientea izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean eta arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen Gobernu Kontseiluaren Erabakian xedatutakoa beteko da.

Prozedura ororen izapidetzea, zeinaren izapideak eta txostenak jarraian zehazten baitira, "Tramitagune" izapidetze elektronikoko aplikazio informatikoaren bidez egingo da, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren arabera, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarrizko eredua onartzen duen erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorriz.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko Aginduak proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia dela-eta egokitzat jotzen diren izapideak

Sin perjuicio de esta valoración inicial, la incidencia presupuestaria será objeto de tratamiento expreso en la memoria de análisis de impacto normativo que se incorporará a la memoria de análisis normativo dentro del expediente junto con la Orden de aprobación previa del anteproyecto de conformidad con lo dispuesto en los artículos 13 y 15 de la Ley 6/2022. A tal efecto, dicha memoria evaluará los costes de implantación y funcionamiento de las medidas contempladas en la norma, así como su eventual incidencia sobre los recursos humanos, materiales y presupuestarios de las administraciones públicas afectadas.

**Cargas administrativas e impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.**

La presente norma no va a generar nuevas cargas administrativas para la creación y el funcionamiento de las empresas ni se prevé que tenga un impacto significativo sobre las pequeñas y medianas empresas o sobre la promoción y el fomento de la actividad emprendedora.

**Trámites e informes procedentes.**

Para la tramitación del expediente se atenderá a lo dispuesto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y en Acuerdo del Consejo de Gobierno por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General.

La tramitación de todo procedimiento, cuyos trámites e informes se detallan a continuación, se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica “Tramitagune”, conforme a la Resolución 54/2025, de 20 de mayo, del director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 de la Ley 6/2022, la Orden de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes debido a la materia y

eta txostenak adieraziko ditu. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako Lege-aurreproiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Aldez aurreko kontsulta herritarrei

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan (aurrerantzean, APEL) eta 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsultaren izapideari dagokionez, adierazi behar da Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Legearen aurreproiektu hau egiteko beharrezkoa dela parte-hartze publikorako mekanismoak bermatzea; izan ere, 6/2022 Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurretiazko kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira xedapenak herritarren eskubide eta interes legitimoei zuzenean eragiten dienean, eta hori gertatzen da kasu honetan.

Aurrekoa betez, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea Irekia plataformaren bidez egin zen, 2026ko maiatzaren 18an argitaratuta. Horri esker, herritarren iritzia jaso ahal izan zen Lege-aurreproiektua egin aurretik. Era berean, iragarkia argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

2.- Hasteko Agindua argitaratzea

6/2022 Legearen 13.2 artikuluaren arabera, prozedura hasteko Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

3.- Testua idaztea

Lege-aurreproiektuaren testua idazteko, Agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta

el contenido de la regulación propuesta. En atención a lo indicado, se determinan a continuación los trámites e informes que se requieren para la elaboración y aprobación del anteproyecto de Ley previsto:

1.- Consulta previa a la ciudadanía

Por lo que respecta al trámite de consulta previa previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante, LPAC), así como en el artículo 11 de la Ley 6/2022 debe señalarse que en la elaboración del presente anteproyecto de Ley de Igualdad de Trato y No Discriminación resulta necesario garantizar mecanismos de participación pública, puesto que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.1 de la Ley 6/2022 deben realizarse los trámites de consulta previa, audiencia e información pública cuando la disposición afecte de manera directa a los derechos e intereses legítimos de la ciudadanía, circunstancia que concurre en el presente supuesto.

En cumplimiento de lo anterior, el trámite de consulta pública previa se llevó a cabo a través de la plataforma Irekia, mediante su publicación el día 18 de mayo de 2026, lo que permitió recabar la opinión de la ciudadanía con carácter previo a la elaboración del anteproyecto de Ley. Asimismo, se publicó el correspondiente anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.- Publicación de la Orden de inicio

De acuerdo con el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, la presente Orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en Legegunea. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

3.- Redacción del texto

La redacción del texto del anteproyecto de Ley se efectuará atendiendo al contenido de esta Orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y

aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.

Testuan, Lege-aurreproiektuaren zehaztapena justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia sartu beharko da, 6/2022 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen den bezala.

Era berean, 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, testua bi hizkuntzetan idatziko da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatuko da hizkuntza-bertsioak egitean, araua idazteko prozesu osoan. Testua bi hizkuntzetan idatziko da, aldez aurretik onartu eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik. Gainera, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatziko da.

<u>4.- Arau-proiektuaren aldez aurreko onarpena</u>

Lege-aurreproiektuaren testua egin ondoren, aldez aurretik onartu beharko da, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren Agindu baten bidez, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6/2022 Legearen 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, aldez aurreko onarpenaren Agindua eta arauproiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira. Ildo beretik, eta Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legean xedatutakoaren arabera, Legegunean argitaratuko da proiektuaren testua, bertan xedatutako publizitate-agindua betetzeko eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko. Gainera, espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

Era berean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluarekin bat etorriz, testuaren aldez aurreko onarpena lortu eta legez eska daitezkeen izapideak bete ondoren, aurreproiektua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da.

al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

Se deberá insertar en el texto una exposición adecuada de los motivos y fundamentos jurídicos que justifican la determinación del anteproyecto de Ley, tal y como se establece en el artículo 14.2 de la Ley 6/2022.

Asimismo, conforme al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado será redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto se redactará de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. Además, el texto será redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje.

<u>4.- Aprobación previa del proyecto normativo</u>

Una vez elaborado el texto del anteproyecto de Ley, se someterá a su aprobación previa, mediante Orden de la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, conforme a lo estipulado en el artículo 15.1 de la Ley 6/2022.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.3 de la Ley 6/2022, la Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, serán objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En el mismo sentido, y según lo estipulado en la Ley 3/2026, de 14 de mayo, de Transparencia de Euskadi, para dar cumplimiento al mandato de publicidad dispuesto en la misma y hacer público, en euskera y castellano, el texto del proyecto, se publicará en Legegunea. Además, se publicarán las memorias e informes que conformen el expediente.

Asimismo, de conformidad con el artículo 56.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, una vez obtenida la aprobación previa del texto y cumplimentados los trámites legalmente exigibles, el anteproyecto será remitido al Parlamento Vasco.

5.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena

6/2022 Legearen 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txosten bat egingo da, eta Emakunderen esku jarriko da, legerian jasotakoa hobetu ahal izateko.

Txosten honen beharra bat dator Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan ezarritakoarekin (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori). Txostena egiterakoan, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak beteko dira, eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak kontuan hartuko dira (2012ko irailaren 25eko EHAAn argitaratua, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez).

6.- Arau-eraginaren azterketaren memoria

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeko memoria bat egingo du, nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin. Memoria egiteko, 15.3 artikuluaren arabera nahitaezkoak diren txostenak eskatuko dira, bai eta, nahitaezkoak ez izan arren, proiektatutako arauaren xedea eta helburua kontuan hartuta interesgarriak direnak ere. Eskatutako txosten guztiak arau-eraginaren azterketaren memorian sartuko dira, espedientearen azterketa juridikoa barne.

7.- Izapideak kontzentratzea

Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, eta 6/2022 Legearen 16., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lege-aurreproiektuaren edukia kontuan hartuta bidezkoak diren entzunaldiaren eta jendeaurreko informazioaren

5.- Informe de impacto en función de género

Según se establece en el artículo 14.4 de la Ley 6/2022 una vez redactado el texto del proyecto, se elaborará un informe de impacto en función del género, que se pondrá a disposición de Emakunde para poder perfeccionar lo recogido en la legislación.

La necesidad de este informe resulta conforme con lo establecido en el artículo 20 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, y en su elaboración se seguirán las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de agosto de 2012 (publicado en el BOPV de 25 de septiembre de 2012, por la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento).

6.- Memoria de análisis de impacto normativo

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, el órgano competente para la instrucción del expediente elaborará, con carácter preceptivo, una memoria de análisis de impacto normativo en los términos y con el contenido previsto en la citada disposición. Para la elaboración de la memoria se recabarán los informes que resulten preceptivos atendiendo al tenor del citado artículo 15.3, y aquellos otros que, a pesar de no ser preceptivos, resulten de interés atendiendo al objeto y la finalidad de la norma proyectada. Todos los informes que sean recabados quedarán incluidos en la memoria de análisis de impacto normativo, incluido el análisis jurídico del expediente.

7.- Concentración de trámites

Con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 16, 17 y 18 de la Ley 6/2022, los trámites de audiencia e información pública, que resultan procedentes atendiendo al contenido del anteproyecto de Ley,

izapideak, eragindako beste administrazio publiko batzuen parte-hartzea eta kontsulta, bai eta organo espezializatuei edo Administrazio Orokorreko sailei egindako txostenak eta kontsultak ere, aldi berean eta epe komun berean egingo dira, aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

6/2022 Legearen 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege-aurreproiektu hau izapidetzeko epe komuna bi hilabetekoa izango da, sail sustatzaileak uste baitu ekimenak konplexutasun berezia duela, kontuan hartuta haren izaera zeharkakoa dela, administrazio publiko eta inplikatutako eragile ugariren parte hartzea eskatzen duela, eta araututako gaien esparru zabala hartzen duela.

<u>8.- Entzunaldia eta jendeaurreko informazioa</u>

6/2022 Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak adierazitako gainerako izapideekin batera egingo dira, hogei egun baliodunеko epean, dagokion ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz egingo da; artikulu horren arabera, alegazioak aurkezteko epea ezin izango da hogei egunetik beherakoa izan.

Horretarako:

- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Lege-aurreproiektua jendaurreko informazioaren izapidera jartzeko ebazpena. Ebazpen horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taularako esteka jasoko da. Bertan, proiektuaren testua eskuragarri egongo da, interesdunek adierazitako epearen barruan egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

la participación y consulta a otras administraciones públicas afectadas, así como los informes y consultas a órganos especializados o a los propios departamentos de la Administración General, se realizarán de modo simultáneo y durante el mismo plazo común, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.3 de la Ley 6/2022, el plazo común para la tramitación del presente anteproyecto de Ley será de dos meses, al considerar el departamento promotor que la iniciativa reviste una especial complejidad, atendiendo a su carácter transversal, a la pluralidad de administraciones públicas y agentes implicados y a la amplitud de las materias reguladas.

<u>8.- Audiencia e información pública</u>

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, los trámites de audiencia e información pública se efectuarán simultáneamente con los demás trámites señalados y durante un plazo de veinte días hábiles, contado desde la publicación de la correspondiente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo previsto en el artículo 83 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que establece que el plazo para formular alegaciones no podrá ser inferior a veinte días.

A tal efecto:

- Se publicará en Boletín Oficial del País Vasco la resolución por la que se somete el anteproyecto de Ley al trámite de información pública. Dicha resolución contendrá un enlace al tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, donde estará disponible el texto del proyecto para que las personas interesadas puedan formular las alegaciones que estimen pertinentes dentro del plazo señalado.

- Ebazpen bera eta Lege-aurreproiekturako esteka Irekian ere argitaratuko dira.

Era berean, 6/2022 Legearen 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, entzunaldia emango zaie xedapenaren xedearekin lotura zuzena duten helburuak dituzten eta haren edukiaren eraginpean gera daitezkeen elkarte eta erakunde adierazgarriei. Bereziki, honako erakunde hauei emango zaie entzunaldia:

- FEVAS
- ELKARTEAN
- LGTBIQ+ Eskubideen aldeko elkartea Anitzak
- Pertsona Transexualen Defentsa eta Integraziorako Euskal Elkartea Errespetuz
- Gipuzkoako Etorkizunaren Aldeko Ijito Elkartea (AGIFUGI)
- Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea (AMUGE)
- GEHITU Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkartea
- NEVIPEN Ijito Elkartea
- Kale Dor Kayiko Ijito Elkartea
- Espainiako Gurutze Gorria
- ALDARTE Lesbiana, Gay eta Transexualen arreta zentroa
- Zehar-Errefuxiatuekin Elkartea
- Bizkaiko Langile Immigranteen Informazio Zentroaren Elkartea CITE
- SOS Arrazakeria Gipuzkoa
- Mundo Libre y Solidario Elkartea MULISOL
- Ortzadar LGTBI Elkartea
- Gao Lacho Drom Ijito Elkartea

Hori guztia, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen bidez interesa duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek eta erakundeek parte hartzeko duten aukera eragotzi gabe.

<u>9.- Eusko Jaurlaritzako sailei kontsulta</u>

6/2022 Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitako Administrazio Orokorreko sailei egin beharreko kontsulten esparruan, Eusko

- La misma resolución y el enlace al anteproyecto de Ley se publicarán asimismo en Irekia.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.2 de la Ley 6/2022, se dará audiencia a las asociaciones y entidades representativas cuyos fines guarden relación directa con el objeto de la disposición y que puedan resultar afectadas por su contenido. En particular, se dará audiencia a las siguientes entidades:

- FEVAS
- ELKARTEAN
- Asociación por los derechos LGTBIQ+ Anitzak
- Asociación vasca para la defensa y la integración de las personas transexuales Errespetuz
- Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa (AGIFUGI)
- Asociación de mujeres gitanas de Euskadi (AMUGE)
- GEHITU Asociación de Gais, lesbianas, bisexuales, trans e intersexuales del País Vasco
- Asociación gitana NEVIPEN
- Asociación gitana KALE DOR KAYIKO
- Cruz Roja Española
- ALDARTE Centro de atención a gays, lesbianas y trans
- Asociación Zehar-Errefuxiatuekin
- Asociación Centro Información de Trabajadores Inmigrantes Bizkaia CITE
- SOS Racismo Gipuzkoa
- Asociación Mundo Libre y Solidario MULISOL
- Ortzadar LGBTI Elkartea
- Asociación Gitana Gao Lacho Drom

Todo ello sin perjuicio de la participación de otras personas físicas o jurídicas y entidades interesadas a través de los trámites de audiencia e información pública.

<u>9.- Consulta a los departamentos del Gobierno Vasco</u>

En el marco de las consultas a los propios departamentos de la Administración General previstas en el artículo 16.2 de la Ley 6/2022, se

Jaurlaritzako sail guztiei parte hartzeko aukera emango zaie.

10.- Beste administrazio batzuen parte-hartzea eta kontsulta

Xedapenaren testuaren aurretiazko onespena argitaratzen denetik bi hilabeteko epe komun berean, eta 6/2022 Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreikusitako arauketaren eragin zuzena izan dezaketen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei parte hartzeko aukera emango zaie.

Bereziki, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta, EUDELen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei txostena eskatuko zaie.

Gainera, aurreproiektua Arartekoari helaraziko zaio. Egokitzat jotzen da testuaren berri ematea, egoki iritziz gero eta Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak esleitzen dizkion eginkizunak betez, egokitzat jotzen dituen oharrak egin ahal izan ditzan.

Bestalde, aurreproiektua Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraziko zaio. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 561. artikuluan aurreikusitako txostena nahitaezkoa izatea dakarten inguruabarrak betetzen direnik ikusten ez bada ere, egokitzat jotzen da testua haren esku jartzea, egokitzat jotzen dituen oharrak egin ahal izan ditzan.

11.- Funtsezkoak ez diren txostenak eta irizpenak

6/2022 Legearen 16. artikuluaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira, eta guztiak aldi berean egingo dira, bi hilabeteko epe komun berean:

- EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan aurreikusitakoa betez.

dará participación a todos los departamentos del Gobierno Vasco.

10. Participación y consulta a otras administraciones

En el mismo plazo común de dos meses desde la publicación de la aprobación previa del texto de la disposición, y tal y como se establece en el artículo 18 de la Ley 6/2022 se dará participación a las administraciones de la Comunidad Autónoma Vasca que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista.

En particular se solicitará informe de las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través de EUDEL.

Además, se dará traslado del anteproyecto al Ararteko. Se considera oportuno poner el texto en su conocimiento para que, si lo estima conveniente y en el ejercicio de las funciones que le atribuye la Ley 3/1985, de 27 de febrero, por la que se crea y regula la Institución del Ararteko pueda formular las observaciones que estime pertinentes.

Por otra parte, se dará traslado del anteproyecto al Consejo General del Poder Judicial. Si bien no se aprecia que concurran los supuestos que determinan el carácter preceptivo del informe previsto en el artículo 561 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, se estima conveniente poner el texto en su conocimiento a los efectos de que pueda formular las observaciones que estime pertinentes.

11.- Informes y dictámenes de carácter no esencial

De conformidad con el artículo 16 de la Ley 6/2022, se solicitarán los siguientes informes de carácter no esencial, realizándose todos ellos de modo simultáneo, y durante el mismo plazo común de dos meses:

- Informe de EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer, en aplicación del artículo 20.6 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eragina eta hizkuntza-arloko indarreko araudiarekiko bateragarritasuna ebaluatzen dituena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2.l artikuluan eta baita azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz ere.

- Informe de la Viceconsejería de Política Lingüística, sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, de acuerdo con lo establecido en el artículo 14.2. l) del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como en virtud de lo determinado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena. Era berean, txostena eskatuko zaio Enplegu Publikoko Zuzendaritzari, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2 a) artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 17.1 a) artikuluarekin lotuta.

- Informe de la Dirección de Empleo Público. Del mismo modo, se solicitará informe de la Dirección de Empleo Público, con base a lo dispuesto en el artículo 18.2 a) de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, en relación con el artículo 17.1 a) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena. Aurreproiektua Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari helaraziko zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- Informe de la Junta Asesora de Contratación Pública de Euskadi. Se dará traslado del anteproyecto a la Junta Asesora de Contratación Pública de Euskadi, en atención a lo dispuesto en el artículo 27.a.1 del DECRETO 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, txostena eskatu behar zaio Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzari; izan ere, Lege-

- Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales. De conformidad con el artículo 21.1.c) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, procede solicitar informe a la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales, en

aurreproiektuak zuzendaritza horren eskumen-esparruarekin lotutako xedapenak jasotzen ditu, bereziki herritarren arretari, zerbitzu publikoen emateari eta bitarteko elektronikoen bidezko administrazio-jarduerari buruzkoak.

- Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena. Era berean, Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena eskatu behar da, 317/2024 Dekretuaren 12.1.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz; izan ere, ekimenak eragina du Administrazioaren barne-antolaketan eta egituran, kide anitzeko organo bat sortzea aurreikusten baitu.

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena. Nahitaezko txostena eskatuko da, (EB 2016/679) Erregelamenduaren 36.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

12.- Nahitaezko eta funtsezko txostenak

A.Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (aurrerantzean, 2/2016 Legea) 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernuen Batzordearen esku-hartzea eskatu beharko da udalen eskumen propioei eragiten dieten arau-xedapen orokorrak egiteko prozeduretan.

Kasu honetan, txosten hori eskatu behar da, Lege-aurreproiektuak toki-erakundeen eskumenei eta funtzioei eragiten dielako; izan ere, besteak beste, honako hauek aurreikusten ditu: toki-administrazioek Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Planak egitea, printzipio hori plangintza- eta kudeaketa-tresnetan sartzea, eta Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Zerbitzuarekin lankidetzan aritzeko betebeharrak. Ondorioz, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena eskatuko da. Proposamena sustatzen duen organoak eskatu beharko du, eta hamabost eguneko epean eman, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

cuanto el anteproyecto de Ley contiene previsiones que inciden en materias comprendidas en el ámbito de sus competencias, en particular, las relativas a la atención a la ciudadanía, la prestación de servicios públicos y la actuación administrativa por medios electrónicos.

- Informe de la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno. Asimismo, se solicitará informe a la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, de conformidad con lo previsto en el artículo 12.1.n) del Decreto 317/2024, al afectar la iniciativa a la organización y estructuración interna de la Administración mediante la creación de un órgano colegiado.

- Informe de la Autoridad Vasca de Protección de Datos. Se solicitará el informe preceptivo a tenor de lo dispuesto en el artículo 36.4 del Reglamento (UE 2016/679).

12.- Informes preceptivos de carácter esencial

A.De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 91 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, (en adelante, Ley 2/2016) deberá solicitarse la intervención de la Comisión de Gobiernos Locales en los procedimientos de elaboración de disposiciones normativas de carácter general que afecten a competencias propias municipales.

En el presente caso, procede recabar dicho informe, por cuanto el anteproyecto de Ley afecta a competencias y funciones de las entidades locales, al prever, entre otras cuestiones, la elaboración por las administraciones locales de Planes de Igualdad de Trato y No Discriminación, la integración de este principio en sus instrumentos de planificación y gestión, obligaciones de colaboración con el Servicio Vasco de Igualdad de Trato y No Discriminación. En consecuencia, se solicitará el informe preceptivo de la Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi, que deberá ser solicitado por el órgano promotor de la propuesta y emitido en el plazo de quince días a partir del día siguiente al de la recepción de la solicitud.

B.Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluaren arabera, Lege-aurreproiektua organo horren nahitaezko txostenaren mende jarriko da, gizarte-politikaren eremuan eragina duen arau-ekimena baita.

C.Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontrol Ekonomikoari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan jasotako aurreikuspenekin lotuta (testu bategin hori urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), bai eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuarekin ere, zeinaren bidez garatzen baitira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuan barne-kontrol ekonomikoaren jarduna eta kontabilitatea.

<u>13.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena</u>

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Lege-aurreproiektuek organo horren irizpena jaso beharko dute, edozein dela ere haien gaia eta xedea, arau horretan berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Arau-ekimen hau Lege-aurreproiektu bat denez eta legez aurreikusitako salbuespenetako batean ere ez dagoenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko irizpena eskatu beharko da, behin betiko testua onartzeko aurkeztu aurretik.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari dagokion irizpena emateko bidaltzen zaion dokumentazio bera Eusko Legebiltzarrera bidaliko da aldi berean, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoaren arabera.

B.De conformidad con el artículo 3 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco, el anteproyecto de Ley será sometido al informe preceptivo de dicho órgano, al tratarse de una iniciativa normativa con incidencia en el ámbito de la política social.

C.Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las previsiones contenidas en el capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

<u>13.- Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi</u>

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 3.1.a) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, deberán someterse a dictamen de dicho órgano los anteproyectos de Ley cualquiera que sea su materia y objeto, con excepción de los supuestos expresamente previstos en la citada norma.

Dado que la presente iniciativa normativa tiene naturaleza de anteproyecto de Ley y no se encuentra comprendida en ninguna de las excepciones legalmente previstas, procederá recabar el preceptivo dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi con carácter previo a su elevación para la aprobación del texto definitivo.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, la misma documentación que se remita a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi para la emisión del correspondiente dictamen será remitida simultáneamente al Parlamento Vasco, de

acuerdo con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno.

14.- Azken onarpena

Lege-aurreproiektu hau izapidetzen amaitu ondoren, Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

14.- Aprobación final

Una vez ultimada la tramitación del presente anteproyecto de Ley, este será elevado al Consejo de Gobierno para su aprobación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 6/2022.

15.- Gardentasuna

Lege-aurreproiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren gunean argitaratu beharko da, Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legearen 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

15.- Transparencia

La información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento para la elaboración del anteproyecto de Ley deberá ser publicada en el espacio de Transparencia de Gobierno Vasco, en consonancia con lo dispuesto en el artículo 17 de Ley 3/2026, de 14 de mayo, de Transparencia de Euskadi.

16.- Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak

Ez da beharrezkoa Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

16.- Trámites ante la Unión Europea

No resulta necesario realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

**Idazketa-sistema.**

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta 6/2022 Legearen 14.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, prestatutako testua ele bietan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan zehar bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz hizkuntza-bertsioak lantzerakoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik. 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko erabiliko den idazketa-sistema honako hau izango da: arau-testuaren gaztelaniazko bertsioa IZO itzulpen-zerbitzuek euskaratzea.

**Sistema de redacción.**

Conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. El sistema de redacción que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el citado artículo 8.1 de la Ley 10/1982, será la traducción por los servicios de traducción IZO de la versión en castellano del texto normativo.

Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikuluaren arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) ziurtagiri bat emango du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la Ley 6/2022, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a

**Instrukzioa egiteko ardura duen administrazio-organoa izendatzea.**

Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz.

**Urteko Araugintza Plana.**

Euskadik arlo horretan arau-esparru propioa izan dezan, Lege-aurreproiektu hau egitea sustatu da, Eusko Jaurlaritzaren 2026rako Urteko Araugintza Planaren aurreikuspenekin bat etorriz. Plan hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 24ko 34/2026 Ebazpenaren bidez argitaratutako erabakiaren bidez onartu zen. Zehazki, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari dagokion 11. atalean jasota dago, 11.1ean, EAEko Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege-aurreproiektua, 2026. urtean Gobernu Kontseiluari aurkeztea aurreikusitako legegintza-ekimenen artean.

Bestalde, aurreproiektua bat dator 2024-2028 Gobernu Programarekin: «Ongizatean Hazi», «Ongizatea, Aurrerapena, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi global baterako». Zehazki, ekimena IV. ardatzean sartzen da ("Bizikidetza, memoria eta giza eskubideak"), 26. jardun arloan ("Genero-berdintasuna eta LGTBIQ+ eskubideak"), eta bete egiten du 128. konpromisoa, LGTBIQ+ pertsonen errealitatea berdintasun-politika publikoen agendan sartzeari buruzkoa. Zehazki, aurreproiektu honek konpromiso horren 1. ekimena garatzen du, hau da, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Legea bultzatzea.

Azkenik, aurreproiektuak Bizikidetzarako eta Belaunaldien arteko Itunerako Esparru Estrategian 2025-2030 (Garai Berriak) definitutako ildo estrategikoei erantzuten die. Zehazki, «Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza» fokuko D.1.1.1 jarduera garatzen du, EAEko Tratu berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege-proiektua egiteari eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzeari buruzkoa

la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP (IZO).

**La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.**

La Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional será el órgano encargado de la instrucción del procedimiento.

**Plan Anual Normativo.**

Con el fin de dotar a Euskadi de un marco normativo propio en esta materia, se ha promovido la elaboración del presente anteproyecto de Ley, de conformidad con las previsiones del Plan Anual Normativo del Gobierno Vasco para el año 2026, aprobado mediante Acuerdo publicado por la Resolución 34/2026, de 24 de febrero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento. En concreto, figura en el apartado 11, correspondiente al Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, como 11.1- Anteproyecto de Ley Vasca de Igualdad de Trato y no Discriminación, entre las iniciativas legislativas previstas para su elevación al Consejo de Gobierno durante el año 2026.

Por otra parte, el anteproyecto se alinea con el Programa de Gobierno 2024-2028 “Ongizatean Hazi”, Bienestar, Progreso, Transformación y Autogobierno para una Euskadi global”. En concreto, la iniciativa se enmarca en el Eje IV “Convivencia, Memoria y Derechos Humanos”, dentro del área de actuación 26 “Igualdad de Género y derechos LGTBIQ+”, y da cumplimiento al compromiso 128, relativo a la incorporación de la realidad de las personas LGTBIQ+ en la agenda de las políticas públicas de igualdad. En particular, el presente anteproyecto desarrolla la iniciativa 1 de dicho compromiso, consistente en impulsar la Ley de Igualdad de Trato y Lucha contra la Discriminación.

Por último, el anteproyecto responde a las líneas estratégicas definidas en la Estrategia Marco para la Convivencia y el Pacto entre Generaciones 2025-2030 (Garai Berriak). En particular, desarrolla la actuación D.1.1.1 del foco «Igualdad de Trato y No Discriminación», relativa a la elaboración y remisión al Parlamento Vasco del Proyecto de Ley Vasca de Igualdad de Trato y No Discriminación.

**Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau,**

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

**Bigarrena.-** Aniztasuna, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritza izendatzea aipatutako Lege-aurreproiektua egiteko organo arduradun, bai eta dagokion prozedura bideratzeko eta izapidetzeko ere.

**Hirugarrena.-** Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrak egin ahal ditzan, hala nahi izanez gero.

**Laugarrena.-** Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkoak diren azterlan, txosten eta kontsultak egitea.

**Bosgarrena.-** Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, bat etorriz Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenarekin, arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren Oinarrizko Izapidetze Eredua onartzeko Erabakia argitara emateko dena, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin.

**Seigarrena.-** Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legean aurreikusitakoaren arabera.

**A la vista de lo anterior,**

**RESUELVO:**

**Primero**.- Iniciar el procedimiento de elaboración del anteproyecto de Ley de Igualdad de Trato y No Discriminación.

**Segundo.-** Designar a la Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional como órgano responsable de la elaboración del anteproyecto de Ley anteriormente citado, así como de la instrucción y tramitación del procedimiento oportuno.

**Tercero.-** Publicar la presente Orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la LPEDCG, suponiendo tal publicación la comunicación automática al conjunto de los departamentos a fin de que puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

**Cuarto.-** Efectuar los estudios, informes y consultas que sean precisos para la elaboración de la norma y para garantizar su acierto y legalidad.

**Quinto.-** Utilizar el modelo de tramitación de las Disposiciones de carácter general y la aplicación informática Tramitagune, de conformidad con la Resolución 54/2025, de 20 de mayo, del director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**Sexto.-** Proceder a la publicación activa de toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento, conforme a lo previsto en Ley 3/2026, de 14 de mayo, de Transparencia de Euskadi.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean. / En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

Nerea Melgosa Vega

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua /

Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico